

2012 · UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBA

Biologia

- BATXILERGOA
- LANBIDE HEZIKETA
- GOI MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK

Azterketa

Kalifikazio eta zuzenketa irizpideak



EUSKAMPUS

Nazioarteko Bikaintasun Campus
Campus de Excelencia Internacional

en la red de



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2012ko UZTAILA

BIOLOGIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2012

BIOLOGÍA

Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jarri behar duzula.

Oro har, galdera guztietarako, ikasleak galdetzen zaionari bakarrik erantzun beharko dio. Erantzunen zehaztasuna eta laburtasuna sarituko da, eta, hala dagokionean, azalpen-eskemak erabiltzea ere bai. Gainera, alderdi hauek kontuan hartuko dira:

1. Proposatutako azterketaren bi aukeretako bati dagozkion galderei bakarrik erantzun beharko die ikasleak, hau da, A aukerari dagozkion bost galderei edo B aukerari dagozkion bost galderei.
2. Aukera desberdinei dagozkien erantzunak ez dira inola ere onartuko.

Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.

De forma general, y para todas las preguntas, el estudiante responderá estrictamente a lo que se pregunta. Se valorará positivamente la brevedad y precisión de las respuestas así como, en su caso, la realización de esquemas explicativos. Además se tendrán en cuenta los siguientes aspectos:

1. El estudiante deberá contestar únicamente las cuestiones relativas a una de las opciones del examen propuesto, es decir las cinco cuestiones de la opción A ó las cinco cuestiones de la opción B.
2. En ningún caso serán admitidas respuestas pertenecientes a distintas opciones.

A AUKERA

1A GALDERA

Gripea zaintzeko sarearen txosten baten arabera, 2012ko otsailean gripea dagoeneko "epidemia"-mailara iritsi da Euskadin.

- (1 puntu)** Egin ezazu birus baten egituraren eskema bat, eta adieraz ezazu zein den birusaren osagaietariko bakoitza. Nola ugaltzen dira birusak, haien osagaiek ez badute inolako jarduera metabolikorik?
- (1 puntu)** Gripearen aurkako urteko txertoak ez dira izaten oso eraginkorrak. Zergatik ez dira horiek eraginkorrak, kontuan izanik beste txerto batzuk guztiz eraginkorrak direla? Arrazoitu erantzuna.

2A GALDERA


Ura:

- (0,5 puntu)** Azaldu ezazu, labur, ura zergatik den likidoa 20 °C-an eta ez gasa.
- (0,5 puntu)** Azaldu ezazu, labur, zergatik disolbatzen den uretan monosakarido bat eta zergatik ez triglizerido bat. Arrazoitu erantzuna.
- (1 puntu)** Defini itzazu "turgentzia" eta "plasmolisi" kontzeptuak, eta egin ezazu marrazki eskematiko bana. Jar ezazu adibide bat adierazteko noiz gertatzen diren horrelako fenomenoak zelulan.

3A GALDERA

Begira iezaiozu molekula honi:

- (1 puntu)** Zer molekula mota dago irudian? Azaldu ezazu zer konposizio eta egitura duen molekula horrek.
- (1 puntu)** Zer funtzio dute horrelako molekulek zelulen metabolismoan? Azaldu ezazu zein den **1** eta **2** zenbakiekin adierazitako eremuen eginkizuna.





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2012ko UZTAILA

BIOLOGIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2012

BIOLOGÍA

4A GALDERA

Mintz biologikoak:

- (0,5 puntu)** Marraztu ezazu mintz zitoplasmatiko baten eskema, eta adieraz ezazu zer molekulaz osatuta dagoen.
- (0,5 puntu)** Zer molekula dira mintza geruza bikoitz gisa antolatzea eragiten dutenak? Parte hartzen du urak? Arrazoitu erantzuna.
- (0,5 puntu)** Zer molekula mota arduratzen dira ioiak mintz biologikoetan barrena garraiatzeaz? Arrazoitu erantzuna.
- (0,5 puntu)** Zer ondorio ditu mintza osatzen duten fosfolipidoen gantz-azidoen asegabetasun-maila handiagoa edo txikiagoa izateak? Arrazoitu erantzuna.

5A GALDERA

Mikroorganismoen aplikazioak bioteknologian:

- (0,5 puntu)** Adieraz ezazu zer puntu komun duten, prozesu biokimikoari dagokionez, okintzak eta ardogintzak. Arrazoitu erantzuna.
- (1 puntu)** Zer biomolekula erabiltzen da bi prozesuetan abiapuntuko material gisa, eta zer produktu bilakatzen da? Zer ondorio du prozesu horietan airea egoteak? Arrazoitu erantzuna.
- (0,5 puntu)** Adieraz ezazu zer mikroorganismo motak eragiten dituen ogia eta garagardoa lortzeko behar diren transformazio biokimikoak. Zer da, prokariotoa ala eukariotoa? Arrazoitu erantzuna.



B AUKERA

1B GALDERA

Zelula amak erabiltzen dituen tratamendu berri baten bidez, miokardioko infartua izan duten pazienteen bihotza partez birsortzea lortu da, baita erasoak eragindako orbaina murriztea ere.

- a) (1 puntu) Adieraz ezazu zer diren zelula amak eta nola lagundu dezaketen zelula horiek enuntziatukoa bezalako terapietan.
- b) (1 puntu) Zertan datza terapia genikoa? Azaldu ezazu, labur, nola txerta litezkeen beste jatorri bateko geneak giza zeluletan anomaliak zuzentzeko edo gaixotasunak sortzen dituzten geneak eraldatzeko.


2B GALDERA

- a) (0,5 puntu) Marraztu ezazu aminoazido baten egitura, eta adieraz ezazu zein diren haren talde funtzional bereizgarrienak.
- b) (0,5 puntu) Adieraz ezazu zenbat aminoazido mota agertzen diren proteinetan, eta aipa itzazu ezagutzen dituzunen izenak. Zer dira aminoazido esentzialak? Aipa ezazu gizakientzat esentziala den aminoazidoren baten izena.
- c) (0,5 puntu) Bi aminoazido kimikoki lotzen direnean, zer molekula mota sortzen dira eta zer lotura mota eratzen da? Zer ezaugarri ditu lotura horrek?
- d) (0,5 puntu) Zer izen dute ehunka aminoazidoz osatutako makromolekulek, eta zer funtzio betetzen dituzte?

3B GALDERA

Irudian, zelula-organulu batean gertatzen diren prozesu metabolikoen eskema bat erakusten da.

- a) (0,5 puntu) Identifika ezazu zer organulu mota den, zer zelula motatan aurkitzen den eta zer funtzio duen.
- b) (0,5 puntu) Identifika ezazu zer molekula adierazten duten irudian 3 eta 4 zenbakiek.
- c) (1 puntu) Identifika eta azaldu ezazu zer prozesu biokimiko gertatzen diren 1 eta 2 guneean, eta zer funtzio duten prozesu horiek.





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2012ko UZTAILA

BIOLOGIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2012

BIOLOGÍA

4B GALDERA

Mutazioak:

- a) **(0,5 puntu)** Adieraz ezazu zer den mutazio genikoa, zer biomolekula motari eragiten dion eta zer biomolekula mota den horren emaitza.
- b) **(0,5 puntu)** Eskema bat erabiliz, aipa itzazu mutazio geniko motak.
- c) **(0,5 puntu)** Adieraz ezazu zer agentek eragin dezaketen mutazio geniko bat eta zer ondorio izan dezakeen mutazioak. Arrazoitu erantzuna.
- d) **(0,5 puntu)** Adieraz ezazu, arrazoituz, ea mutazio guztiak kaltegarriak diren jasaten dituzten izakientzat. Ez badira, adieraz ezazu zer abantaila duten mutazioa jasan duen organismoarentzat.

5B GALDERA

Mikroorganismo batzuk oso baliagarriak dira hartzidura alkoholiko eta laktikoaren bidez elikagaiak —esate baterako, ogia eta jogurta— lortzeko.

- a) **(1 puntu)** Zertan datza hartzidura horiek? Adieraz ezazu zer konposatutatik abiatzen diren hartzidura horiek eta zer produktu lortzen diren amaieran.
- b) **(1 puntu)** Zer mikroorganismo motak gauzatzen ditu hartzidura horiek? Azaldu ezazu, labur, zer antzekotasun duten eta zertan bereizten diren, egiturari dagokionez, hartzidura bakoitzean parte hartzen duten mikroorganismoek.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

BIOLOGIA

Orokorrean eta galdera guztietarako, ikasleak erantzun beharko dio bakarrik galdetu egiten zaionari. Erantzunen zehaztasuna eta laburtasuna modu positiboan baloratuko da eta hala balegokio, erabilitako azalpen-eskemak. Gainera, ondoko aspektuak kontuan hartuko dira:

1. Ikasleak proposatutako azterketaren aukera bati dagokion galderei bakarrik erantzun beharko die, hau da, A aukerari dagozkion bost galdekizunak edo B aukerari dagozkion bost galdekizunak.
2. Inondik inora ez dira onartuko aipatutako aukera ezberdinei dagozkien erantzunak.
3. Bost galdekizunen bakoitzak bi atal edo gehiago izan ditzake.
4. Galdekizun bakoitza era independentean ebaluatuko da eta zerotik bi puntura kalifikatuko da. Dauzkan atal guztiak puntuatuko dira derrigorrez, horrela, bakoitza, indibidualki, aipatutako puntuazio handienarekin puntuatuko da.
5. Azterketaren azken kalifikazioa bost galdekizunetan lortutako kalifikazioen guztien kopurua izango da.
6. Erantzunen edukia, baita adierazteko modua ere, formulatutako testuari zehatz-mehatz lotuko zaio. Honexegatik, biologi hizkuntzaren erabilera zuzena, erantzun argiak eta zehatzak eta azterketaren aurkezpen argia eta garbia positiboki baloratuko dira.
7. Grafiko eta azalpen argiak baita ortografia eta espresioa zuzena ere positiboki balora daitezke.
8. Erantzun argudiatua eskatzen den galdekizunetan, ongi argudiatuta dagoen erantzuna bakarrik hartuko da kontuan zuzena dena.
9. Irudiak edo/eta egiturak identifikatzeko eskatzen diren galdekizunetan, identifikatzeko eskatzen diren izenak derrigorrez aipatu behar dira. Grafikoetan azaltzen diren izenak agertutako argitalpenetatik datoz; beraz, beste adiera batzuk zuzenak izango dira, baldin eta justifikatuak eta zuzenak badira.
10. Grafiko bat edo eskema bat eskatzen den galdekizunetan, horren argitasuna baloratuko da.
11. Emandako erantzunak baloratzeko eta zuzentzeko ebaluatzaileak Biologia testu liburuetan agertzen den edukia, irakasgai honetarako erabilitako ohiko tresna dena, kontuan hartuko du.